



ALTZA



1.999ko Iraila/Urria * Altzako Herri Batasuna * Dohainik * 2.Urtea * 9. Zenbakia



**Herria eraikitzea
guztion lana**



EDITORIALA

Gure belarrietan dago oraindik berriaren oiar-tzuna: ehun eta piko preso "hurbilduko" zituela espainiar gobernuak. "Keinu" honekin "bake prozesua"ri, bultzada bat eman nahi zion gobernuak. Bizi dugun egoera edo prozesua egonkortu asmoz... Hauxe etengabe, berria zabaldu zenetik, medioetatik entzun ari duguna. Urte honetan zenbat preso hurbildu dituzten, zenbat askatu... baita azken boladan kutsu abertzalegoa hartzen ari den ETBn ere! Aldiz, eremu abertzaletik erantzun sendoa izan du berriak, zergatik ote? Sarritan aipatu izan da esaldi famatu hau: "los árboles no dejan ver el bosque". Gure kasuan, ez zen batere txarra izango memoria pixka bat egitea, eta gogoratu Aznarrek duela hilabete eskas aipatutakoa; zerbait egin zitekeela presoen aferan prozesuaren garapena ikusita. Gogoratu behar dira gobernuko zenbait kide ameriketara egiten ari diren bidaiak, han dagoen errefuxiatuen kolektiboari bueltatzeko eskaintza egiteko. Gogoratu behar dira azken urte honetan izandako euskaldunen erahilketak: Ttotto, Arrantzale, hainbat senide, eta azkena Esteban Nietorena. Hauxe baita une honetan espainiar gobernuak euskal prozesuarekiko duen aukera bakarra: errepresaliatu politikoak eta beraien senideak erabili txanpon truke gisa, exterminatu ezin dituen bitartean. Eta baita intoxikazio eta nahasketa sortzeko tresna gisa ere. Gobernuak jakin badakielako euskal prozesua ez dela "bake prozesua"; badakielako eraikuntza nazionalen urratsak ematen hasiak garela eta prozesu hau gure eskuetan dagoela, euskaldunen eskuetan. Guri dagokigulako bakarrik hitza eta erabakiak hartzea. Badakite azken finean, bere papera honetan guztietan bi puntuetara mugatzen dela: gure herriaren onarpena eta herriak hartzen duen erabakia errespetatzea. Eta kitto! Prozesua euskaldunen gauza da, eta inolako injerentziarik gabe burutu behar da. Ardura gure gain dago. Eta ez gara bi estatuei begira egon behar, ea zer egiten duten, ea ETArekin hitzegiten duen... hori guztia ez da garrantzitsua. Garrantzia duena da guk, euskaldunok zer egiteko gai garen. Norainoko determinazioa dugun hasitako prozesu politikoa bururaino eramateko. Hor dago benetako gaia! Baina estatuak ezin du onartu alde batera, inolako protagonismorik gabe geratzea, eta bere lan zikinari ekiten dio. Irudikatu nahi du, nahasmena ere sortuz, berak baduela paper bat, borondatea duela "bakea" lortzeko, eta mugimenduak egiten dituela. Faltsua. Eta nola egiten du hori guztia? Duen karta bakarra erabiliz: sufrimendua. Hori da espainiar estatuak euskal prozesu demokratikoa zapuzteko duen txantaia. ez gaitzen engaina. Espainiar gobernuak prozesu hau bultzatu nahi badu, borondate politikoa erakutsi behar du. Adieraz dezala Euskal Herriko errealitatea onartzen duela eta prest dagoela guk erabakitakoa onartzera. Eta era berean preso eta errepresaliatu guztiak bakean utzi prozesu honetan parte har dezaten. Jar dituzagun begiak Euskal Herrira begira eta jarrai dezagun lan egiten, etengabe. Lehen pausua Udalerrien Biltzarraren osaketa formalak izan da: Udalbiltza. Estatutik estrategia berarekin jarraituko dute, baina gure lanera.

Altzako tzan eredu

Aurten, Altzako eskola publikoetan 2 urtetako geletan lehenbiziko aldiz matrikulatutako laurogei (80) haurretatik, 64k D eredu euskaldunean egin dute, eta 16k berriz, B eredu elebidunean.

Artikulu honen xedea Altzako zentro publikoetan euskarazko hezkuntzak zein nolako errealitatea bizi duen azaltzea da. Bertan jasotzen ditugun datuak 12 urterarteko ikasleena da. Aurrerantzean hezkuntza maila guztien zein zentru pribatuetakoa datuak eskeintzen saiatuko gara. Aurrera jarraitu aurretik azal dezagun zein hizkuntza eredu ditugun gure hezkuntza sisteman:

1.) **A eredu**: Erdarazko hezkuntza. Euskara ikasgai soila da, egunero ordu bat.

2.) **B eredu**: erdia gaztelaniaz eta beste erdia euskaraz.

3.) **D eredu**: Euskarazko hezkuntza. Gaztelania egunero ordu bat.

3 eredu hauetatik, garbi dago gure seme-alaben euskalduntzea ziurtatzen duen bakarra D eredu dela.

Zentzu honetan, aipatzeko da azken hamabost urteetan matrikulazio garaian kriston joera aldaketa eman dela. Horrela lehen eskaintzaren %100 erdaraz egiten zen bitartean, egun, A eredu hezkuntza publikotik desagertu da (*ikus ondoko taula*)

Are gehiago, 2-5 urte bitarteko haurren hezkuntzan gehiago dira eredu euskalduna aukeratu duten ikasleak (171) eredu elebiduna aukeratu dutenak baino (165).

		0	1	2	3	4	5	G
ALTZA	B				18	25	27	88
ikastetxea	D			25	14	11		50
HARRI BERRI	B				14	22	5	41
ikastetxea	D			38	35	18	28	121
HERRERA	B			18	15	14	11	58
ikastetxea	D							

haur eta lehen hezkun- euskalduna nagusi

Eta lehenengo aldiz eskolaratzen diren ikasleen datuak begiratzen baditugu, artikularen haseran adierazi dugun bezala, datuak oraindik positibokoak dira, 64 matrikulatu baitira D ereduan eta 16 B ereduan.

		0	1	2
ALTZA	D			25
HARRI BERRI	D			39
HERRERA	B			16

Amaiera gisa, eremu publikoko haur eta lehen hezkuntzan dugun matrikulazioa arras positiboa dela azpimarra dezakegu, eta etorkizunari begira 2 erronka garrantzitsu aurreikus daitezke. Alde batetik, Herrera ikastetxean D ereduaren eskaintza zabaltzea. Bestetik A ereduaren eskaintzarik ez izatea hezkuntza sistemaren goi urrats edo etapetan.



		HAUR HEZKUNTZA							
		0	1	2	3	4	5	6	Guztira
ALTZA	A								
	B				16	25	27		68
	D			25	14	11			50
OLETA	A								
	B								
	D								
HARRI BERRI	A								
	B				14	22	5		41
	D			39	35	18	29		121
HERRERA	A								
	B			16	15	14	11		56
	D								
		LEHEN HEZKUNTZA							
		0	1	2	3	4	5	6	Guztira
ALTZA	A								
	B		18	22	24	38	41	30	173
	D		15	10	4				29
OLETA	A								
	B		6	7	10	6	18		47
	D		19	12	7	11	15	8	72
HARRI BERRI	A								
	B								
	D								
HERRERA	A								
	B		21	10	8	14	17	20	90
	D								

Subiranotasune



Con el final de las vacaciones de verano, comienza un nuevo curso político al que vamos a tener que hacer frente entre tod@s si queremos llevar a buen puerto el proceso que hace exactamente un año pusimos en marcha.

Y para ello, antes que nada, debemos hacer una lectura del momento político actual, y entender y situar correctamente ciertas iniciativas. Después de las elecciones municipales, el proceso sufre un parón y los acuerdos políticos e institucionales que debían darse en la nueva legislatura para dar pasos firmes en la reconstrucción de Euskal Herria no se dan. También durante el verano, hemos podido observar como ciertos sectores del PNV, cómodos en España, han aprovechado para apedrear el proceso: en Bilbo Ázkuna colocando la insignia española, Ibarretxe recibiendo con reverencia al rey de España... Actitudes y declaraciones de este tipo entre nuestros compañeros de viaje han frenado el proceso y sembrado duda e indefinición. Pero es hora de mirarnos a nosotros mismos. ¿Qué hemos hecho en esta nueva coyuntura cada un@ de nosotr@s para dar pasos hacia la soberanía de nuestro pueblo?

rantz abian

¿Cuál es realmente nuestro compromiso? Somos responsables del coste que supone el delegacionismo y la actitud pasiva de mirar desde las gradas, pensando que el proceso sólo lo refuerzan "los de arriba", y que todo lo solucionarán un día sentándose en una mesa con el estado español y francés. Pero tenemos que

**Egoera politiko
honetan denok
egin behar dugu
lan, delegazio-
nismorik gabe**

entender que ya no estamos en esa clave, y aceptar la responsabilidad de arrastrar a los que titubean y empujar a los que no quieren moverse, y en definitiva crear condiciones que hoy no existen.

De esta manera tenemos que entender la ruptura de relaciones por parte de ETA con el gobierno español, por la falta de seriedad y voluntad de éste. Mientras no exista voluntad, nuestra única opción es seguir adelante, sin pedir permiso a nadie, y los pasos firmes que ahora demos obliguen a los

gobiernos español y francés a una verdadera solución, que pasa por respetar la palabra y decisión del pueblo vasco.

Ese es pues nuestro trabajo. Sin esperar que otros lo hagan por nosotros, y avanzar en pro de la soberanía con confianza en nuestras propias fuerzas. Si ahora estamos en este escenario político concreto es gracias al trabajo y la lucha que durante años, día a día, tod@s l@s que

**Orain bizi dugun
egoera urtetan
Ezker
Abertzaleak
egindako lanaren
ondorioa da**

componemos la Izquierda Abertzale hemos hecho. Años en los que hemos peleado solos. Y sin duda alguna, en adelante el trabajo de la Izquierda Abertzale va a condicionar el proceso abierto. Tomar la iniciativa y dar pasos firmes hacia adelante, cada un@ de nosotr@s desde su puesto.

Estamos hablando de un marco jurídico-político agotado, y después de hacer el diagnóstico de la situación que vive Euskal

Herria junto con los agentes sociales, políticos y sindicales, la confirmación de este agotamiento se reflejará en todos los ámbitos. Y entonces se entenderá mucho mejor la necesidad de un nuevo marco jurídico-político para Euskal Herria, y se verán, sin ningún tipo de dudas, los pasos que debemos dar para llegar a esa situación.

Sin duda alguna acabamos de empezar, y hay trabajo para tod@s, sin esperar a nadie. De momento ya hemos comenzado con la creación de una ins-

**Udalbiltzaren
sorrerarekin
Eraikuntza
Nazionalaren
lehen pausoa
emana dago**

titución nacional, "Udalbiltza". El siguiente paso en ese sentido será llenar de contenido esta institución nacional y construir Euskal Herria desde todos los frentes, también el institucional, que garantice un proceso democrático y constituyente.

Imanol Ostolaza "Tito", Altzako preso ohia **"Urte hauetan guztietan, beste era batera izan bada ere, herri honen alde borrokatzen jarraitu dugu"**

Titorekin geratu ginenean, bagenekien ez genituela arazo handirik izango prestaturiko galde-
 rei erantzuna aurkitzeko. Eta horrela izan zen. Grabagailua martxan jarri eta laurogeita hamar minutuko zinta agortu zuen. Gustora ibili ginen hizketan Altzako baserri baten tabernan. Bokata eta sagardo batzuk hartzeko aitzakia ezin hobea. Hemen doakizue beraz, une horretako zati bat.



- la 19 urte gartzelan eman ondoren, jada kalean zara. Zaila egiten al zaizu askatasunera ohituztea? Zer da gehien kostatzen ari zaizuna?

- Barruan bizimodua latza da, baina hein handi batean oinarrizko behar-
 rarak beteja dituzu: arropa, janaria (nahiz eta txarra izan), dirua, liburuak... kaleratzen zarenean beste gizabanako bat gehiago zara, agian arazo handiagorekin, eta besteak bezala behar material batzuk asetu beharra duzu, eta noski, zaila egiten da. Ez duzu etsaiaren presio zuzen hori, baina bai bestelakoak. Gartzelatik atera eta bapatean aurre egin behar diezu arazo horiei guz-
 tiei: lana, etxebizitza bat independi-

zatzeko... bestetik preso izatearen bereziatsun hori galtzen duzu, eta jendeak ez du Tito pertsona ezagutzen, Tito preso baizik. Gizartea ere dexente aldatu da azken urte hauetan eta adina aldetik ere, zahartzen zaren heinean, zailagoa egiten zaizu moldatzea. baina tira, ez pentsa dena ilunegia denik.

- Gartzelan eman dituzun urte hauetan guztietan nola jaso duzu jendearen sostengu eta atxekimendua?

- Euskal Herriaren berri gutun eta bisiten bidez izaten dugu. Barruan hori da gure arnasa, gure elikadura, Euskal Herriarekiko zilbor-hestea. Hori gabe galduta ginateke.

Kontutan izan prentsa aldetik kris-
 ton zentsura dugula, eta atzerrian egonik dena arrotza egiten zaizu. Badakigu ere jendearen aldetik jasotzen dugun informazioek subj-
 tibotasun handia dutela, baina dugun bakarra da. Horregatik beti filtroa buruan jarrita izan behar duzu. Fidatzen bazara esaten dizuten guz-
 tiaz akabo.

- Eta kalean zer motako sostengu eta laguntza jasotzen ari zara?

- Kanpoan zailagoa da. Ikusten duzu jendea zurekin dela, afektibotasun handia somatzen duzu, baina errealitate hor da. bakoitzak bere ar-
 zoei aurre egin behar dio. Niretzat arazo berriak dira: lana, lagunak...

Bakarrik ere sentitzen zara. Kontutan izan 20 urtetako desfase bat dagoela.

-Zein aldaketa nabaritu dituzu bai Euskal herrian bai Altzan? Onerako zein txarrerako.

- Altzan onerako, inoiz baino politagoa ikusten dudalako, z o n a l d e berdeak...Txarrerako kutsadura akustikoa, zarata, motorrak, eta baita jendearen bizitza erritmoa ere... eta maila sakonago batean gizarte indibidualistago bat ikusten dut, langabezi arazoak dakartzan guztiarekin: independetzia falta, askatasun indibidualaren falta, eta honek noski geure borrokan ere eragina du. Garbi dago dependentzia pertsonal egoera batean iraultzaile gutxi sor daitezkeela. Gaur egun ikusten dut jendeak nahikoa duela lanari eustearekin eta ideologia alde batera uzten da. Kontserbadurismorako joera garbi bat dago egun gazteen artean. Gaurko gazteentzat lana jainkoa da. Baloreetan eta pentsamoldean tradizionalismo batera bueltatu gara.

- Eta nola ikusten duzu egun dugun egoera politikoa?

- Garbi dago une itxaropentsuak bizi ditugula. Orain ere, duela 20 urte bezala, bidegurutze batean gaude. Euskal herriaren subiranotasunerantz bueltaezinezko urratsak emateko aukera dago. Gu, berriz, orain dela 20 urte aukera hori tronpatu zenean, konsziente ginen gure borrokarekin bideak egiten ari gine-la. Orain eraikuntza nazionalaren bidean gauza garrantzitsuak egiten ari dira: Udalbiltza Euskal Herri osoko instituzio nazional gisa... Denok bezala mesfidakor nintzen PNVren jarreraz, baina gauzak aurrera joan daitezten guk bultzatu behar ditugu. Ez dugu pentsatu behar dena goitik egingo dutela. Gainera ezker Abertzaleak motorea

izan behar du. Nik sinisten dut hartutako bidean, eta hauteskundeetako emaitzek hala diote. Dena den konplexua da. PPK ere ikusten du bere estrategiak botoak ematen dizkiola. Horregatik presiobide berriak bilatu beharko ditugu, desobediencia zibila, intsumisio fiskala... Garbi dago presionatzen jarraitu behar dugula. Urteen poderioz gauzak aldatuz joan diren bezala presiobideak ere aldatu behar direla. Eta ez soilik mobilizazio mailan, sujeta berriak ere inplikatu behar dira, azken finean gizarte osoa.

- Esan duzu prozesu honetan ezker Abertzaleak motorra izan behar duela. Nola ikusten duzu Altzako Ezker Abertzalea?

- Egia esan oraindik denbora gutxi daramat hemen horrelako balorapen sakon bat egin ahal izateko. Dena den oso inpresio positiboa jaso dut. Nire garaian ez bezala, orain jende dexente ikusten da mugimendu desberdinetan antolatua. Gu, berriz, saltsa guztietan ginen. Zentzu horretan aurrerapausoak eman dira. Gero egia da Altxa herri handia dela, eta jende guztia elkartzeara zaila da, baina orohar indarrak batzera jo behar dugu. Kanpora begira indar metaketa batera jotzen ari garen momentuan, barrura begira ere horretara jo beharko genuke.

- Edozein preso kaleratzen denean bere lehen hitzak barruan geratu diren kideentzat dira. Zure kasuan ere horrela izan zen. Altxan oraindik 7 preso ditugu: Koldo, Fernando, Melli, Joseba, Alfonsso, Josu eta Kris. Zein da zure ustez hauek ateratzeko egin behar duguna?

- Orainarteko bideek bere eragina izan dute: gose grebak, manifesta-

zioak... baina ez dira nahikoak. Mobilizazio berriak bilatu behar ditugu, eta gizarte osoa inplikatu errepresaliatu guztien etxeratzearen bidean prozesu honetan parte hartzeko. PP presoekin jolasten ari da, eta horrela ulertu behar dira egin dituen azken mugimenduak. Hau guztia xake partida baten antzekoa da, eta bakoitza bere interesen arabera mugitzen da. Ezinezkoa da presoan afera konpontzea Euskal Herriko subiranotasuna errespetatzen ez den bitartean. Kartzelara eramán gintuena honen aldeko borroka izan zelako. Horregatik adi egon behar gobernua horrelako maniobrak egiten dituenean.

- 18 urte eta erdi gartzelan egotea latza da, baina zer esango zenioke zure bizitzako urterik hoberenak galdu dituzula esaten dizun edonori?

- Galdera horrek erantzun erraza du, oker dagoela. Nik ez dut inolaz ere nire bizitzaren 18 urte galdu.

Egia da baldintza latzetan bizi ditudala, baina nire bizitzaren parte dira, eta horrekin bizi behar duzu. Borroka honetan sartu ginenean konsziente ginen zein ondorio jasan genitzakeen. Urteak galdu, bakarrik bidean geratu diren lagunek galdu

dituzte. beraz, errepikatzen dut, oker daude hori pentsatzen dutenek. Gu barrura joan ginen momentu batean bide bat jarraitzea erabaki genuelako, eta ez gara inolaz ere damutzen. Urte hauetan, beste era batera izan bada ere, herri honen alde borrokatzen jarraitu dugu.

- Eta azkenik, bukatzeko, amets bat.

- Begira, galdera hori zailagoa da. ez dakit... maila pertsonalean egunen batean nahiko nuke belauntzi bat izan eta munduari buelta eman. Baina benetako ametsa litzateke herri hau behingoz libre ikustea.

“Oker daude nire bizitzaren 18 urte galdu ditudala pentsatzen duten horiek”


“Denok inplikatu behar dugu egungo prozesuan, gauzak ez dizkigute goitik konponduko”

Todo sigue pendiente


Las elecciones suelen ser época de falsas promesas. Promesas dirigidas a captar el voto de aquellos que todavía no lo tienen claro, y que con el tiempo suelen caer en saco roto. Los políticos viven de ello y saben muy bien como hacerlo. Se olvidan de nosotros todo el año o toda la legislatura y en época de elecciones aparecen con promesas de futuras obras en el barrio o con trabajos a última hora para poder así vender su gestión. Por desgracia, en Altza de esto último hemos tenido (y seguimos teniendo) buena constancia gracias a Odón Elorza. Así, consciente de lo que se jugaba, justo antes de las municipales, el alcalde inició una loca carrera de "chapuzas", algunas de las cuales empezaron ya en primavera ya aun hoy están sin terminar, y que ahora tenemos que sufrir tod@s.

En estas líneas nos limitaremos a recoger algunas de estas "maravillas". Mejor serás que no dejemos pasar por alto estas cosas, y las recordemos cuando vuelvan con sus mentiras. De nada sirve quejarse ahora si luego volvemos a caer en los mismos errores.

PARQUE INFANTIL DE LARRATXO: Unido al ya grave problema del tráfico, dejar a los crios en este parque resulta cuando menos peligroso. ¿No hay limitadores de velocidad para esta zona?



GURE AMETSA Y ACERAS ROJAS: Los vecinos de Gure Ametsa se quejan también de la velocidad de los coches. Parece que tampoco para aquí hay limitadores. Además, las aceras que han puesto a lo largo del paseo son una chapuza. A la altura de las marquesinas del autobús, con las goteras, se hacen unos charcos enormes. Y del acabado...



PARQUE INFANTIL CONTAMINADO: En Larratxo llevar al cri@ al parque se está convirtiendo en un verdadero problema. Al ya mencionado nuevo parque, este anterior no aguantaría ni el más mínimo examen. De momento en los análisis realizados hasta la fecha la arena contiene infinidad de virus.

